

GURE JENDEA: GIZARTEA ETA KULTURA

Laburpen exekutiboa

Liburu berdeak aukera eman digu gure artean solas egiteko urteetan bereizten gintuen gai baten inguruan: Euskal Herriaren egituraketa politiko-soziala.

Hori posible izan da Eusko Ikaskuntzaren mendeurrena ospatzeko Kongresuak atzerako begiradak eskaintzen duen perspektibarekin etorkizunari begira solas egiteko esparru egokia eskaini digulako eta gure gogoetak eta eztabaidak ardatz komun baten inguruan ardazteko proposamenari heltzen jakin izan dugulako: euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzatza. Xede horren inguruan plazaratu ditugu batzuek eta besteek gura kezkek, gure nahiak eta gure ilusioak.

Lanketa hau modu progresiboan eta metatuan burutu dugu modu kolaboratiboan identifikatutako gaien inguruan sakontze mintegi desberdinak gauzatu:

1. Euskal lurraldeen territorioak: kohesioa eta identitateak.
2. Uda Ikastaroa: Kohesioa eta bizikidetzatza: euskal lurraldeak eta lurraldetasuna XXI. Mendean.

Gogoeta azken mendean euskal herritarrok, eta gizarte modernoek oro har, bizitako aldaketek izan dute abiapuntu. Batetik, egungo gizartearen aniztasunaren kudeaketaren inguruan eztabaidatuz eta, bestetik, kohesiorako bideak bilatuz.

Gaur egungo gizarteetan, muga politikoez ondo zedarritutako lurraldeetan bizi da jendea. Lurralde hori bertan gurutzatzen den jendeek egiten duten hura da, bizi praktiken elkarrekintza da finean. Elkarrekintza horiek, ezinbestean, *gu* eta *besteen* arteko ezberdintasuna sortzen dute, autodefinizio prozesu bat sortuz, eta prozesu horretan aniztasunak elkargurutzatu eta tentsio eta kontraesan iturri izaten dira maiz.

Muga politikoz zedarritutako lurraldeko horiek Nazio-Estatuak dira eta, honi lotuta, herritartasuna agertzen da, berarekin eskubide eta betebeharrak multzo bat dakarrena. Eztabaida honekin erantzun askotariko galdera agertu izan da: nor da herritar eta zertan datza herritartasuna?

Jende, gorputz eta bizi praktika horien gurutzaketa bizikidetzatza eratzailera da, baina, aldi berean, gatazka iturri. Tentsio horretan bilakatzen dira jendeen arteko harremanak, loturak, komunitatea, kohesioa... Aniztasun horrek badauzka Mendebalde guztiarekin partekatzen dituen ezaugarriak: anitz egiten gaituzte sexu-genero sistemaren araberrako identitateak, ondasun material zein immaterialen irispidearen araberrakoak edo klaseak, eta jatorriaren zein begirada arrazializatzaileen araberrako atxikitako nortasunak. Eta aniztasunak gurean badu ezaugarri propiorik: herri identitateari dagokiola identifikazio diferentetako jendeak bizi garelara, identitate kolektiboko baldintzei beste intersekzio bat erantsiz. Aniztasun horiek denak, gainera, elkarrekin txirikordaten dira. Horrenbestez, bizikidetzatza eta kohesioa indartzekotan ezinbestekoa da aniztasunaren aniztasun hori bere osotasunean aintzat hartu eta kudeatzea. Herri bati kohesioa ematen dion hezkuntza sistemak hemen du, hain zuzen ere, buruhauste handia: aniztasunaren dimentsio askotarikoei erantzun beharra.

Euskal Herriko egoerara etorrira, gizarte anitz horren ezaugarriak ikusi ditzakegu, baldintzapen eta helburu desberdinak dituzten taldeak. Baina helburu horien artean badira, era berean, joera

bateratzailea dutenak. Izan ere, helburu komunak lortzeko, elkarren arteko indarrak biltzea ohikoa izan da gizarte guztietan, eta Euskal Herrian ere adibide bat baino gehiago aurki dezakegu, maila lokal edo sektorialetan. Herri txiki edota auzoetan auzolan edo elkarlanerako proposamen ugari aurki daitezke; berdin beste maila batzuetan partekatutako helburua argia bada. Maila lokaletik gora egiten dugunean, ordea, zaildu egiten da kohesiorako proiektuak garatzea, baldintzak eta helburuak biderkatu egiten dira eta. Izan ere, edozein gizartetan etengabeko gatazkak sortzen dira maila askotan; saihestezinak direla esan dezakegu, baina ez horregatik halaberharrez kaltegarriak. Are gehiago, askok garrantzi handia ematen diote gatazkaren izaera eraikitzaileari, gizartean egon daitezkeen injustiziak agerian utzi, eta aldaketa positiborako bidea izan daitekeelako.

Ez da erraza denentzako onura ekar lezakeen proiekturik zehaztea, ez baitago onura, ongizatea, garapena, aurrerapena edo halako kontzeptuen inguruko adostasunik; beraz, herrialde horren onura edo ongizate abstraktuak bilatu behar dira. Gizarte demokratikoetan onartzen da gure gizartearen abiapuntua aniztasuna dela eta interes gatazkak daudela maila askotan, hala ere, denen arteko kontsentsua bilatzen dela, herri modura aurrera egiteko. Herri gisa definitzea, eta biztanle guztien arteko nolabaiteko helburu komunak bila daitezkeela onartzea dira herrialde baten kohesiorako abiapuntua. Eztabaidetan elkarren arteko konfiantza ezinbesteko elementu gisa agertu da herri baten kohesiorako.

Aipatu diren ezaugarri eta aldaketak testuinguru batean kokatu behar ditugu, eta jakina da Mendebaldeko gizarte aurreratuetan prozesu garrantzitsuak gertatzen ari direla: globalizazioa, teknologia berrien garapena, migrazioak, sexu-genero identitateen azalaraztea, indibidualizazioa pentsaeran, edo kontsumo mentalitatea. Identitatea kulturari oso loturik zegoen orain arte, baina kontsumoari loturik ikusten dugu gero eta gehiago. Gure gizartea gero eta konplexuagoa da, eta horrek guztiak gizarte harremanetan ere eragiten du: komunitate zentzua aldatzen ari da, norbanakoaren eta komunitatearen arteko harremanak birdefinitzen ari dira.

Aldaketok ondorio negatiboak eta positiboak eragin dituzte. Alde negatibotik, nabaria da elkarren arteko konfiantza maila jaitsi egin dela. Besteak beste, krisi ekonomikoak, langabeziak eta lanaren baldintza kaskarrek zapuzketa sentrazioa zabaldu dute, eta konfiantza galera ekarri gizartera. Baina alde positibotik, esan dezakegu, aurreko denboretan ez bezala, norbanakoaren eta taldearen interesak, bienak, zaindu nahi direla gaur: norbanakoa ez da desagertzen taldearen barruan, eta lan kolektiboak antzeko interesak dituzten herritarren ekimenez sortzen dira.

Berriz ere Euskal Herrira etorrita, desberdintasun handiak aurkitzen ditugu maila guztietan. Eta, nola ez, aldaketa ziklo honek irakurketa desberdinak utzi ditu Euskal Herrian ere. Irakurketa ezkorrak gizarte kapitala birsortzeko gaitasun falta salatzen du, Hego Euskal Herrian batez ere. Inertzia zaharrek gehiegi loturik, bertako gizarte zibila ez omen dago sendoturik, eta ez dago prestatuta egoera berrian aritzeko. Herri proiektua falta da; herri gisa, nora joan nahi den zehaztea. Irakurketa baikorrak, aldiz, lankidetzaz esparru berriak sortzen ari direla azpimarratzen du, maila lokalean gehienetan, baina baita eskala handiagoetan ere, Ipar Euskal Herrian bezala. Beharko litzateke denontzako proiektu kolektiboa, maila sinbolikoa eta materiala bil litzakeena. Honetan, nazio proiektu baterako, instituzioen papera funtsezkoa litzatekeela aipatu izan da, bai eta hezkuntzak jokatzeko duen berebiziko paperak (kritikotasuna bultzatzeko adibidez).

Azkenik, hezkuntzaren bidez, instituzioen bermeaz, herri mugimenduen dinamismoz, eta euskal gizartearen onarpenaz, konfiantza loturak eraiki eta sendotu behar direla bilgune espazioak sortze aldera ondorioztatu da.

5 gai mahai gainean solaserako

1. **Aniztasuna.** Aniztasun askotarikoak daude presente gaur egungo gizarteetan (nazionala, klasekoa, sexu-generokoa, jatorrizkoa, kulturala...) eta bizikidetzeta eta kohesioa indartzeko bidean ezinbestekoa da aniztasunaren aniztasun hori bere osotasunean aintzat hartu eta kudeatu behar da.

Galderak: Nor da herritar eta zertan datza herritartasuna? Aniztasunaren pluraltasun hori nola kudeatu daiteke? Zer paper jokatzten dute eskolak eta hezkuntzak horretan? Nola txirikordatzten dira aniztasuna eta kohesioa? Nola kudeatu kulturartekotasuna?

Hainbat kontzeptu ezbaian: identitatea, aniztasun nazionala, klase-aniztasuna, genero-aniztasuna, jatorri-aniztasuna, kultur aniztasuna, aniztasunaren kudeaketa, eskolaren papera

2. **Kohesio bideak.** Egungo gizartearen konplexutasunak elkarren arteko konfiantza maila jaitsiarazi du, eta aldi berean, norbanakoaren eta taldearen interesak zaindu nahi dira, norbanakoa taldearen barruan desagertu gabe.

Galderak: Zer zailtasun agertzen dira kohesioa proiektuak garatzerakoan? Gizarte aniztetan sortzen diren gatazka saihestezinek ba al dute izaera eraikitzaileak? Beharrezkoa da kontsensua herri modura aurrera egiteko? Zer balio partekatzen dugu Euskal Herrian herri proiektu baterako? Behin oztopoak gainditurik, ordea, badago aukerarik kohesiorako proiekturik garatzeko?

Hainbat kontzeptu ezbaian: aniztasuna eta kohesioa, kohesioa maila lokalean, gatazkaren izaera eraikitzailea, kohesioa herrialde mailan, kontsensua, gizarte kapitala, balioak, konfiantza, komunitatearen berdefinizioa, proiektu kolektiboa, instituzioak eta nazio-proiektua, hezkuntza kritikoa, hezkuntza eta euskara, bilgune espazioak

3. **Euskal Hedabideen Sistema.** Komunikabideek ere errealitatea sortzen dute, ez soilik islatu, eta gaur egun Euskal Herria ez da komunikaziozko herria.

Galderak: Zer paper jokatzten dute komunikabideek komunitatearen kohesioan? Zer hutsune ditu euskal komunikazio politikak? Zertarako dugu beharrezko Euskal Komunikazio sistema?

Hainbat kontzeptu ezbaian: komunikabideak nazioaren eta jendartearen ekoizle gisa, komunikazio modu ezberdinak, komunikabideak eta euskara, komunikazio politikaren hutsuneak, komunikazio sistemaren beharra.

4. **Ingurune digitala.** Leku geografikoa ez den espazioa, baina habitatu daitekeen espazio berria. Espazio honek muga eta aukera berriak zabaltzen ditu.

Galderak: Bada territorio digitalik? Askea al da espazio hori? Nola baliatu ingurune digitala kohesiorako? Zer paper jokatu dezake Euskal Komunitate Globalak zazpi lurraldeetako eta Diasporaren arteko kohesioan?

Hainbat kontzeptu ezbaian: ingurune digitala espazio gisa, inguru digitala ez da espazio askea, ingurune digitala arautuko duen saila, ingurune digitala ikertuko duen institutua, ingurune digitala territorio gisa, geografia eta Internet.